


Tarea 2. Plan de mejora de las competencias lectoras en la ESO.



ASIGNATURA	<i>Arreta Hezkuntza ATENCIÓN EDUCATIVA</i>
CURSO	3º E.S.O/ DBHko 3.maila
CENTRO	I.E.S MENDILLORRI
DEPARTAMENTO	FILOSOFÍA
PROFESOR / A	Mª YOLANDA SALINAS Y AMAIA UHARTE
FUENTE	
AUTOR	
TÍTULO	MONO DE AMIGOS
EDITORIAL	
AÑO	2000
PÁGINA	
ISBN	
TIPOLOGÍA	
SOPORTE	Texto impreso
FORMATO	DISCONTINUO/ <i>Etena ez-jarraia</i>
TIPO	ANUNCIO PUBLICITARIO/ <i>Publizitate-iragarkia</i>
USO	PÚBLICO/ Publikoa
ESTRATEGIAS DE LECTURA	
ANTES DE LA LECTURA	<p>1. Aurreko elkarrizketan agertutako lagun arteko argotari dagozkion hitzak azpimarratu dituzte, eta euskaraz zein erdaraz adierazitako hitzen artean polisemikoa den hitza agertzen den ala ez erabaki ondoren, hitz horren esanahiak guztien artean azalduko dute, “mono” hitzarena irakasleak bereziki azpimarratuz.</p> <p>(Oharra: Euskaraz baliokidetzat hartzen ez den arren, “mono” hitzaren esanahien artean drogek (alkohola kasu honetan) eragiten duten abstinentzia sindromeari dagokion esanahia irakasleak berak azalduko die ikasleei).</p> <p>2.Merkatuan liderra den edari honen markak hasiera hasieratik (Darwin aurpegia duen tximua sortu zuenetik) publizitateari ematen dion garrantzia azalduko zaie.</p> <p>3.Ikasleei iragarkiaren jatorrizko kokapena eta zer dela eta azalduko dizkiegu. Publizitate egileek ematen dituzten zenbait azalpenen berri ere emango diegu: iragarkiak nola irakurri ohi dugun, zein den lekurik aproposena iragarritakoa bereziki nabarmentzeko, iragarkiko lema baliogarritasuna.</p>
DURANTE LA LECTURA	<p>1. Iragarkiko produktuaren ingurua aztertuz hasiko gara: mendiko estxola,hizketan alai ari den lagun taldea, eskiatzen izandako istripuak eragindako lesioa,igeltsoa eta berriz , Darwinen marrazkia, kirol janzkera, barreak eta abar... Horretaz aparte, iragarkiak iragartzen duen produktuak lagun taldean,modu deigarri batean betetzen duen lekua ere bereziki azpimarratuko dugu.</p> <p>2.Ikasle guztien artean, irudiak adierazten duena kontatuko dute, azaltzen diren ideiarik garrantzitsuenak azpimarratuz.</p>
DESPUÉS DE LA LECTURA	<p>1.Ikasleen guztien artean, sei ikaslek antzetzuko duten lagun arteko elkarrizketa prestatu.</p> <p>2.Guztien artean iragarkiak iragarritako objektua seinalatu eta definitu ondoren, ikasleek lagunaren arteko harremanetan sortzen diren sentimenduen eta produktuaren arteko loturak banan banan adieraziko dute, arbelean produktua erdian jarriz eta bere inguruan “eguzki kontzeptuala” osatuz.</p> <p>b)Adiskidetasuna- Konfidantza- Komunikazioa- Edertasuna- Anis del mono Leialtasuna- Gaztetasuna- Alaitasuna Hau egin ondoren, gure gizartean garrantzia handia duten baloreen eta, graduazio handiko edariaren arteko lotura horien atzean ezkututzen diren harreman faltsuak agerian utziko dituzte.</p> <p>3.Bukatzeko, publizitateak egungo neurri gabeko kontsumoarekin duen erantzunkizuna aztertuko du, hiru lotura bereziki landuz: -Publizitateak gure baitan pizten dituen ilusio faltsuak.</p>

		-Publizitateak lur planetaren hondamendian duen eragina. -Publizitateak egun planetako lurralde txiroak pairatzen ari diren esplotazioaren inguruko erantzunkizuna.
PROCESOS LECTORES		
<i>Informazioa bilatzea edo eskuratzea</i> RECUPERAR - OBTENER INFORMACIÓN	1.	Zein marrazki errepikatzen da iragarkian ?
	<i>Respuesta/ Erantzuna</i>	<i>Aurpegi bera agertzen da goian, botilan eta hankaren igeltsuan (Darwin)</i>
	2.	Adierazi zeintzuk diren duela gutxi gertatutakoaren berri ematen duten elementuak eta, gertaerak berak eraginda, lagunen arteko bilkura azaltzen duena.
	<i>Respuesta/ Erantzuna</i>	<i>Mendiko aterpean jarraitzen dute lagun guztiek. Honetaz aparte, oraindik eskiatzeko egokia den janzkera daramate, baita zaurituak ere. Eskiak hor agertzen dira eta eskiatzeko zaurituak erantzitako bota ere bai.</i>
<i>Ulermen orokorra</i> COMPRENSIÓN GLOBAL	1.	Zure ustez, zein da esloganik egokiena? a) Erori bazara... hor konpon! Eta "El Mono" anisa! b) Garrantzitsuena ez da ez erortzea, altxatzen jakitea baizik. c) El Mono anisa, adiskidetasunaren laguntza. d) Hotza kentzeko... anis ona.
	<i>Respuesta/ Erantzuna</i>	<i>c) El Mono anisa, adiskidetasunaren laguntza.</i>
	2.	Iragarritako produktua aparte utzita, zein da irudiak helarazi nahi digun mezua?
	<i>Respuesta Erantzuna</i>	<i>Lagunak behar ditugunean, hau da, une txarretan, gertu izaten dira. Lagunei esker, atsekabeak desagertzen dira</i>

<p><i>Interpretazioa</i> INTERPRETACIÓN INFERENCIAS</p>	1.	<p>Zein da irudi honetatik atera daitekeen ondorioa? Egokiena aukeratu.</p> <p>a) Memento txarretan alkoholak laguntzen gaitu b) Istripua izan duenari triste ez egoteko lagunek anis botila erosi diote. c)Arazoak izan arren, lagunekin eta txupito batekin alai egon gaitzeke d)Zoritxarrean ere, preziatuena izan gaitzeke.</p>
	Respuesta Erantzuna	<i>c)Arazoak izan arren, lagunekin eta txupito batekin alai egon daiteke</i>
	2.	<p>Azaldu zein den irudiaren eta adierazpenaren arteko lotura. “mono de amigos” esalpidiak adierazten duena kontuan hartuta.</p>
	Respuesta Erantzuna	<p><i>Lagunak faltan somatzen ditugu, beharrezkotzat jotzen baitugu (“Mono de amigos”). Irudian lagunak botilaren inguruan elkartzen dira, edaria konpartitzeko asmoz.</i></p> <p><i>Lagunak behar ditugunean, gure ondoan egonarazten dituen eragilea “anisa” da. Anisari esker gure beharra asetzen dugu, lagunen beharra hain zuzen ere. Abstinentzia sindromeari, hau da, “mono”ari anisa kontsumituz aurre egiten diogu.</i></p>
<p><i>Formaren gaineko hausnarketa</i> VALORACIÓN - REFLEXIÓN FORMA</p>	1.	Zertarako erabili ditu koloreak egileak?
	Respuesta Erantzuna	<i>Euskarria txuri beltzean agertzen da eta iragarritako objektua kolorez, gorritz hain zuzen era. Gorria dena, hau da, iragarritakoa txuri beltzean nabarmen geratzen da. Gorritz adierazitako elementua irudiaren erdian agertuz, alde batetik produktuaren marka (El mono) eta beste aldetik, adiskidetasuna (de amigos) lotzeko aukera ematen digu.</i>
	2.	Iragarkiaren helburua azpimarratzeko, zein irudi geometrikoa (forma) osatzen dute pertsonaiek ?
	Respuesta	<i>Slogana, marka eta bere ikurra eta igeltsuan</i>

	<i>Erantzuna</i>	<i>dagoen marrazkia justu erdian daude. Bestalde lagunen gorputzak hurbil daude, osotasun borobila osatuz botilaren inguruan</i>
<i>Edukiaren gaineko hausnarketa</i> VALORACIÓN - REFLEXIÓN CONTENIDO	1.	Azaldu iragarkiak sortarazten dituen ideia faltsuak: "Mono" a, adiskidetasuna, kirol arriskutsuen praktika eta alkoholaren kontsumoa.
	<i>Respuesta Erantzuna</i>	<i>Alkohola edateak alkoholarekiko menpekotasuna eragiten du. Alkoholzaleak nahitaez alkohola kontsumitzera behartuta dago. Kontsumitu ezean, abstinentzia sindromeak jota geratzen da. Aipaturiko sindromea, hots, "mono"-a ez da gozatzearekin zerikusia duen esperientzia eta gainera, lagunak galarazten dizkigu. Izan ere, "monoak" jota dagoen pertsonaren portaera bortitza izan ohi da eta hori dela eta, kirol arriskutsua praktikatzea ez da batere komenigarria.</i>
	2.	Gaur egun horrelako iragarkia ikusiko genuke? Edo zerbait faltako litzaioke? Erantzuna arrazoitu.
	<i>Respuesta Erantzuna</i>	<i>- Hizki handiez eta garbiez, -alkholak eragin dezakeen menpekotasuna adierazi, edariak duen graduazioaren berri ematearekin batera. -Alkoholaren kontsumoak izan daitezkeen ondoriak iragarkian txertatu. (Oharra: Tabakoarekin egiten den bezala). -Adin gutxikoen alkohol kontsumoa debekatuta izateaz gain, legeak kontsumo mota hau zigortzen duela nonbait ere aipatu.</i>
PRAKTIKAN JARRI/PUESTA EN PRÁCTICA – OHARRAK OBSERVACIONES		